



# EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Menderakuntza bidezko perpausak -II-

- >Helburuzkoak
- >Kontzesiboak

**NOLA ERABILI**

## **Menderakuntza bidezko perpausak -II- helburuzkoak / kontzesiboak**

Esku artean daukazun bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke: helburuzko perpausak eta perpaus kontzesiboak.

### **-Kontzesiboak 11:10**

#### ***PROPOSAMENA***

Bideo-gelara jo aurretik, perpaus kontzesiboei buruzko orrialdeen kopiak ikasleei aurreratu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

#### **-ATALDRAMATIKO LUZEA: YOSEMITERA**

**-Bost ikasleko taldeak egin.**

**-Gidoia taldekideen artean irakurri**, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

**-Gidoia berridatzi**. Letra lodiz azpimarratutako egiturak, egitura baliokideez ordezkatu.

Esaterako:

**OLATZ.- Behin eta berriro eskatu diodan arren**, ez du zentimo bat ere eman nahi.

Ikasleek zera jarriko dute:

**OLATZ.- Behin eta berriro eskatu badiot ere**, ez du zentimo bat ere eman nahi.

edo

**OLATZ.- Nahiz eta behin eta berriro eskatu**, ez du zentimo bat ere eman nahi.

edo

**OLATZ.- Behin eta berriro eskatuta ere**, ez du zentimo bat ere eman nahi.

Hori guztia egin eta gero, bideoaren bigarren atala ikusi.

## *kontzesiboak*

Perpaus kontzesiboetan mendeko perpausak oztopo edo eragozpena adierazten du; hala ere, eragozpen hori ez da nahikoa perpaus nagusia bete ez dadin.

### **YOSEMITERA**

- OLATZ.-** Behin eta berriro eskatu diodan arren, ez du zentimo bat ere eman nahi.
- LOREA.-** Zuhurra da gero, gure Jose Mari! Batzuk zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta zuhurragoak dira.
- OLATZ.-** Bai.
- LOREA.-** Eta zer esan dizu gure Jose Marik?
- OLATZ.-** Guk bestelakorik **uste badugu ere**, guri mesede egitearren ukatzen digula diru-laguntza.
- MIKEL.-** Hori ere entzun behar!
- OLATZ.-** Bai, Jose Marik dio, burua puskatu nahi badugu puskatzeko, baina ez eskatzeko berari horretarako laguntzarik.
- MIKEL.-** Beno, aparka dezagun Jose Mariren gaia eta hel diezaiogun gureari. **Nahiz eta Jose Marik dirurik jarri ez**, joango garenez, non sartuko garen jakin behar dugu. Bidearen irudiak dauzkat.
- OLATZ.-** Bidearen irudiak? Non lortu dituzu?
- MIKEL.-** Adolfo Madinabeitiak utzi dizkit.
- OLATZ.-** Adolfo, e? Ikus ditzagun.
- MIKEL.-** Lehenengo kanpalekua ikusiko dugu; eta, gero, pareta hiru zatitan.
-

**MIKEL(OFF).**- Parkean sartzeraoan, zazpi eguneko baimena bakarrik daukagula esango digute.

**MIKEL(OFF).**- Horra hor laugarren kanpalekua. Bost izar duen kanpina ez izan arren, oso giro polita egoten da. Hor biltzen dira eskalatzailleak.

**OLATZ(OFF).**- Hara hor gure kapitaina.

**MIKEL(OFF).**- Ederra da gero. El Capitan!

**LOREA(OFF).**- Oker ez banago, eskalatuko dugun bidea, inguru honetan hasten da.

**MIKEL(OFF).**- Ez zaude oker, ez. Jarraitu, Lorea.

**LOREA(OFF).**- Begiak itxita ere, asmatuko nuke; hainbestetan aztertu dut bidea.

**OLATZ(OFF).**- Nik ere; hemen daukat krokisa.

---

**OLATZ.**- Beste munduko marrazkia ez bada ere, aski ongi ulertzen da.

---

**OLATZ(OFF).**- Lehenengo luzeak oso bertikalak ez izan arren, arreta handia eskatzen dute.

---

**LOREA.**- Jakina, giharrak berotu eta egoera bertikalera ohitu arte nahikoa baldar ibiliko gara.

**OLATZ.**- Bai; hemen sekulako entrenamenduak eginda ere, ez gara puntu-puntu iritsiko.

**LOREA.**- Hori bagenekien, Olatz. Zoazen paretara zoazela, beti egin behar dituzu egun batzuk toki berrira egokitzeke.

**OLATZ.**- Ados, ados. Hirugarren bileratik aurrera paretara...

**MIKEL.**- Zati hori, bideoan hobeto ikusiko dugu.

---

**OLATZ(OFF).**- Bideoan etzana **dirudien arren**, hor ikusten ari zareten pareta hori bertikala da. Ez izan zalantzarik.

**LOREA(OFF).**- Bai, toki horretan, ezer egin gabe ere, nekatu egiten zara.

**MIKEL(OFF).**- Nekeak eta sufrimenduak **gorabehera**, bertan egotea gustatuko litzaidake.

**LOREA(OFF).**- Bai, niri ere bai; eskalatu egin behar dugu bide hori, **kosta ahala kostatuta**.

**OLATZ(OFF).**- Egin behar dugu, **kosta ahala kostatuta**, zuk esan duzu. Baina, ez badugu ganoraz antolatzen, ez dugu egingo; **nahiz eta lamina guztien laguntza izan.**

---

**LOREA.**- Kontxo, Olatz. Hori, **esan gabe ere**, badakigu.

**MIKEL.**- Lasai, neskak, ikus ditzagun paretaren **erdiko irudiak**.

---

**MIKEL(OFF).**- Horra hor el Capitanen bihotza. Hori da gure bideko zatirik **zailena**.

---

*arren, nahiz eta, ba... ere..., -agatik ere,  
-ta ere / -rik ere, gabe ere, -la(rik) ere,*

## *arren*

*arren* egitura bi eratara erabil daiteke: adizki jokatuekin eta adizki jokatugabeekin. Adizki jokatuekin erabiltzen denean, aditz laguntzaileak *-n* atzizkia hartzen du, eta ondoren *arren* jartzen da.

Yosemitera joango garen **arren**, ez dakigu eskalatuko dugun.

Adizki jokatugabeekin erabiltzen denean, *arren* aditz-partizipioaren atzean jartzen da, besterik gabe.

Yosemitera joan **arren**, ez dakigu eskalatuko dugun.

Bestalde, mendeko perpaus gehienetan bezala, menderakuntzaren marka bukaeran jartzen da.

Behin eta berriro **eskatu diodan arren**,  
ez du zentimo bat ere eman nahi.

Eguneroko euskara mintzatuan, forma jokatugabeak dira erabilienak, batez ere etorkizuna adierazteko. Forma jokatugabeak pertsona eta aldi guztietarako balio du.

Hamaika aldiz erori **arren**, iritsiko gara gailurrera.

Egundoko egarria pasa **arren**, bizirik aterako gara.

Eguraldi ona iragarri **arren**, badakit sekulako beroa pasako dugula.

## *nahiz eta*

*nahiz eta* egitura, *arren* egituraren baliokidea da; baina, *arren* ez bezala, *nahiz eta* perpausaren hasiera-hasieran kokatzen da.

**Nahiz eta material guztia prest daukagula uste izan, seguru nago zerbait ahaztuko zaigula.**

**Nahiz eta krokisa buruz ikasi, beti izaten da ustekaberen bat.**

**Nahiz eta eskalatzeak lehentasuna izan, gustatuko litzaidake Los Angelesera joatea bisitan.**

*nahiz eta*, *arren* bezala, adizki jokatuekin nahiz jokatugabeekin erabil daiteke.

**Nahiz eta primeran presaturik joan, urduri nago.**

**Nahiz eta primeran prestaturik joango naizen, urduri nago.**

## *ba... ere...*

*ba... ere...*, egitura ere perpaus kontzesiboak egiteko erabiltzen da. Aditz laguntzaileari edo trinkoari *ba-* aurrizkia erantsi eta ondoren *ere* lokailua gehituz eratzen da. Hitz bitan esanda, *baldintza jokatua + ere*.

**Gaixorik banago ere, joan egingo naiz Yosemiteara.**

**Diru guztia neronek jarri behar badut ere, joan egingo naiz Yosemiteara.**

Baldintza jokatugabeak ere erabiltzen dira perpaus kontzesiboak eratzeko. Horretarako, nahikoa da baldintza jokatugabeei *ere* gehitzea. Dena dela, gorago ikusi dugun *ba... ere...*, egitura da alde handiz erabiliena.

**Gaixorik egonez gero ere, joan egingo naiz Yosemiteara.**

**Hegazkinak berrrogei urte izatekotan ere, joan egingo naiz Yosemiteara.**



## *-agatik ere,*

Aditz partizipioari *-agatik ere* egitura erantsiz gero, perpaus kontzesiboa lortzeko bidean izango gara. Egitura hau Iparraldean erabiltzen da nagusiki.

Pareta benetan erraldoia izanagatik ere, ez diot beldurrik.

Beso luzeak edukiagatik ere, ez du arinago eskalatuko.

## *-ta ere /-rik ere*

*-ta edo -rik* atzizkiez osatutako partizipio adberbialari *ere* gehituz ere perpaus kontzesiboak eratzeko egitura lortzen da. Ikus dezagun.

Mesedez eskatuta ere, ez nuke galduko Yosemiteko aukera.

Arriskurik badauela jakinik ere, joan nahi dut.

## *gabe ere*

*gabe ere* egitura ezezkoetan baino ez da erabiltzen, eta aditz-partizipioaren atzean kokatzen da. Ikus dezagun:

Aitarekin egon naiz. Ezer esan **gabe ere**, badakit zer pentsatzen ari den.

Entzun **gabe ere**, badakit zer esango didan ahizpak.

## *-la(rik) ere*

Denborazko *-la(rik)* egiturari ere lokailua gehitzen badiogu, perpaus kontzesiboak eratzeko egitura lortuko dugu; *ba- ere* egituraren baliokidea dena.

Edozer gertatzen dela ere, ez gara larritu behar.

Edozer gertatzen bada ere, ez gara larritu behar.



## Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:  
*Euskal Gramatica Osoa*,  
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:  
*Gramática Gaitasuna Lantzen*,  
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:  
*Euskaltzaindiaren arauak*,  
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

## Orri elektronikoa

[www.hiru.com](http://www.hiru.com)